

## Miguel Angel Oribe herriko eskultoreak erakusketa du Donostian

Maiatzaren 7a bitartean Ku eta Do izeneko erakusketa izango da ikusgai egongo da Donostiako NoColor aretoan. Ikus daitzkeen pieza gehienak zura eta burdinarekin eginkoak dira. /5



# Kontzentrazioa Bajen kudeaketa publikoaren alde

Michelin-Lasarteko Enpresa Batzordeak deituta ordu beteko bilkura egin zuten

Apirilaren 28an, asteartea Laneko Osasuna eta Segurtasunaren nazioarteko eguna ospatu zen. Michelin-Lasarteko Enpresa Batzordeak deituta, eguerdiko 13:15etatik 14:15era atezaindegian kontzentrazio bat egin zen *Bajen kudeaketa publikoaren alde* eta *FREMAP kanpora* lelopean.

Enpresa Batzordearen hitzetan, 2008an 112 pertsona hil ziren lan istripuez, eta kopurua aurreko urtearekin alderatuta txikiagoa izan arren egoera tristea eta gordina da.

Honetaz gain, lan osasunarekin loturiko erakunde guztien arabera, lan gaixotasunengatik milatik gora dira hildakoak, hau da, heriotza-istripu bakoitzetik lan gaixotasunaz 10 hildako egoten

dira. Zerrenda luze honi istripuko bajak gehitu behar zaizkio, lesio larri eta ez hain larriekin, baita Mutuek desbideratu eta gaixotasun arruntak balira tratatzen diren gaixotasun profesionalak ere.

Enpresekiko administrazio publikoen exijentzia ezak, lan ikuskatzaileen eskasiak (3.000 enpresako bat EHAEan) eta Osalan eta INSLen arteko koordinazio ezak egiten dute egoera bere horretan egotea.

Michelinen, langile guztiek jasaten dute Fremap-ek egiten duen bajen kudeaketa. Hau dela-eta, apirilaren 28an, egoera hau berriro salatu nahi izan zuten eta bide batez enpresan ematen diren bajen kudeaketa Gizarte Segurantzak egin ditzala exijitu. •



## Lehen Jaunartzea ospatzen hasi dira haurrak

Maiatzarekin batera hasten dira ospatzen Lehen Jaunartzeak herri guztietan. Gurean ere, hutsik egin gabe, hasiak dira ospakizun horiek. San Pedro parroikiko haurrak izan dira lehenak Lasarte-Orian aurtan Lehen Jaunartzea ospatzen. Ia hogei haur bildu ziren atzo, meza entzun, lehenengo aldiz jaunartzea egin eta ondoren, ilusio handiarekin senitarteko eta lagunekin egun handia ospatzera joan ziren.

Datorren astean berri, Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizako haurren txanda izango da. •



## KIROLA /2

Herriarteko pilota txapelketako kanporaketa jokatu zuen Lasarte-Oriak Elgoibarren aurka larunbatean

## KIROLA /3

XV. Pala Txapelketako finala sorpresa handirik gabe ospatu zen igande eguerdian Michelinen



IEFPS USURBIL GLHBI



Ate irekiak maiatzaren 9an eta 16an, larunbatez

Goi-mailako  
Erdi-mailako  
HEZIKETA  
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administratza



Mantenimientua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

# Seigarren aldiz jarraian txapeldunak

Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga bikoteak irabazi zuen finala atzo eguerdian Michelingo frontoian


## TXINTXARRI

Ostadar Kirol Fundazioak antolatu duen Lasarte-Oriako Gomazko XV. Pilota Pala Txapelketako finala jokatu zen igande eguerdian Michelingo frontoian. Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga gerriko gorriarekin eta Bernaitz Odriozola eta Santi Martin urdinarekin jokatu zuten ordu eta erdi inguru iraun zuen finala. Azkenik Lazkano-Arluziaga bikoteak irabazi zuen txapela partidari 30 eta 21 nagusitu ondoren.

Hirugarren eta laugarren postuak hasieran nahiko berdinduta zeuden jokoan, baina Iñaki Lizaso eta Alain Etxebestek aukeratutako pilota apurtu zenean, partida ere apurtu zen. Momentu horre-

tatik aurrera gorrien alde joan zen partida, eta nahiz eta saiatu, azkenean Iñaki Lizaso eta Alain Etxebestek partida galdu zuten 30 eta 14 tantoe-kin Haritz Urdanpileta eta Xabier Etxezarretaren aurka.

Finala berriz borrokatu- goa izan zen. Txapeldunak beti joan baziren ere 4-5 tanto aurretik, Odriozola eta Martin bikoteak nahiko lan eman zieten. Azkenean irabazi zuten, baina beraiek aitortu zuten bezala, nahiko lan egin behar izan zuten, txapeldunordeak ez ziren kikildu eta partidaren bukaera arte borrokan aritu ziren. •



Goiko irudian 3. eta 4. postuagatik lehian, behean berriz, finaleko irudia.

“ Azkenean irabazi dugu, baina txapeldunordeak serio aritu dira eta gu ere gogor saiatu behar izan gara txapela eramateko



Irudian, txapeldunak eta txapeldunordeak oroigarriekin eta antolatzaileekin.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Argazkian ikus daitekeen senior mailako partidari izan zen tantuetan diferentziarik handiena izan zuena.

## Txapelketan mantentzeko Elgoibarren irabazi behar

Pasa berri den asteburuko larunbat arratsaldean jokatu zen Michelingo frontoian XLIII. Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa. Nahiz eta ostirala jai izan eta herritar gehienak zubia eduki, bai pilotariak, baita entrenatzaileek ere jai egin gabe frontoian eman zuten eman beharreko guztia.

Herriareko Txapelketako kanporaketa ondo hasi bazuten ere, asteburu honetan partidaren emaitzak pittin bat aldatu ziren.

Lehenengo kanporaketan herriko pilotariak 6 eta 0 irabazi zioten Idiazabalgo tal-

deari, baina bigarren kanporaketan, Elgoibarren aurka, egoera aldatu da.

Hiru partida jokatu ziren larunbatean, kadeteak, jubentilak eta seniorrak.

Kadeteetan Unai Ituarte eta Ander Rekondo pilotariak jokatu zuten Elgoibarko Konde eta Txurrukaren aurka. Gogoz aritu baziren ere, pilota partida galdu egin zuten 22 eta 12ko emaitzarekin.

Hurrengo partida berriz, jubentilena izan zen. Partida hau, aurrekoa ez bezala, irabazi egin zuten 22 eta 15eko emaitzarekin. Lasarte-Oriako

Jon Pello Artetxe eta Gorka Mendizabal pilotariak aritu ziren Elgoibarko Arrizabalaga eta Arribillaga pilotarien aurka.

Azkeneko eta hirugarren partida seniorrena izan zen. Herrikoek partida hau galdu egin zuten 22 eta 4ko emaitzarekin. Elgoibarko Arrizabalaga (jubentiletan jokatzeko duenaren anaia) eta Loiolak jokatu zuten herriko Aitor Aranburu eta Xabi Arteagaren aurka. Elgoibarko aurrelaria den Arrizabalagaren sakeek min handia egin zioten herriko Arteaga pilotariari, tantu

gehienak sakez lortu baitzituzten elgoibartarrek.

Hala ere esan beharra dago dena ez dagoela bukatuta, eta hurrengo partida ostiralean jokatuko dutela Elgoibarren. Ea orduan herrian baino emaitza hobea goak dituzten.

Joxe Felix Solanok, herriko pilotariaren arduradunak, ahal duten guztia emango dutela ziurtatu zuen larunbatean. Elgoibarko pilotariaren entrenatzaileak aldiz, beraiek kanporaketan lana txukun egitea eta aurrera joateko aukera izango dutela uste du. •

### Kirol emaitzak

#### Futbola

Urola K.E. - Ostadar (Infantilen ohorezko maila, kopa) ..... 0-3  
 Ostadar-Aretxabaleta (Infantil Txiki kopa) ..... 2-2  
 Gazteak F.T. - Ostadar (II. Erregionala Igoera) ... 2-3  
 Ostadar-Intxaurren (Jubenilak, I. maila Igoera) . 2-3  
 Touring-Ostadar (Kadeteak, ohorezko maila kopa eta jetsiera) ..... 0-2  
 Urnieta-Ostadar (Emakumezkoen kopa) ... 0-2  
 Ostadar-Beasain (Emakumezkoen FI I) ... 3-3

#### Saskibaloia

Katu Kale- Ainhoa (II. maila) (Gizonetako seniorrak) 31-60



## Badator Ostadarreko Porra!

Ostadar Kirol Fundazioak txirrindularitzako porra antolatatu du aurten ere.

Egun hauetan ohiko tabernetan aurkituko dituzue boletoak betetzeko.

Gogoratu lasterketako lehenengo etapa egunean biltzen direla guztiak. Beraz, Giroa maiatzaren 9an hasten denez, boletoak egiteko epea egun berdinean, larunbatean 21:00etan amaitzen da.

Porra funtzionamendua betikoa izango da, baita boletoaren salneurria ere, 7 euro.

#### Sariak

Sariei dagokionez, etapako 60 euroko ordain saria dago, sailkapen orokorreko lehenarentzat 360 euro eta bigarrenarentzat 180 euro.

Honetaz gain, 7 urdiazpi-ko zozketatuko dira parte hartu dutenen artean eta 8.a faroliloari emango zaio.

Puntu gehien batzen dituen tabernak ere saria

dauka, bi pertsonentzako aforria Urgul Jatetxean (Euskal Herria kalea 8, Alde Zaharra).

Eta urtero bezala, Giro, Tour eta Vueltako onenak 1600 euro irabaziko ditu.

Porra egiteko txirrindularien zerrenda Ostadarreko webean aurkitu ahal dezakezue eta giroa behin hasita sailkapen eta boleto guztiak bertan aurkituko dituzue. •



Diru sariatz gain, urdiazpiokoen zozketa egiten da Porrako partehartzaileen artean.



## Dardo Txapelketa Michelinen

Dardos Easo, S.L.-k antolatzen duen Euskadiko II. Bullshooter Dardo Txapelketa ospatuko da Michelingo frontoian datorren asteko maiatzaren 8, 9 eta 10ean. Euskadiko Bullshooter liga ofizialetako jokalariek guztiak eman dezakete izena, ala nahi badute, noski, baina horretarako ezaguna den rankin ofizial batean egon behar dute. Izan ere, antolatzaileek

delegazioen rankinen kopia bat izango dute, eta bertan ageritzen ez diren jokalariek ezingo dute parte hartu.

Interesatuak zaudetenak gogoratu txapelketan parte hartu ahal izateko rankinen batean sartuta egotea beharrezkoa dela, bestela ezingo da parte hartu. Izena emateko taldean bete beharko dira inskripzio orriak maiatzaren 4a baino lehen. •

# Kontakizun ateo

Rafa Lopezen narrazioa argitaratu dute ateismoaren inguruko lanen bilduma batean

Lasarteoriarraren kontakizun labur bat argitaratu du Tenerifeko La Laguna hiriko "La Colmena" liburutegi eta argitaletxeak. Ateismoaren inguruko 20 lan bildu dira guztira liburuan. Sariketa bat antolatu zuen *Tierra de fuego* taldeak, hain juxtu, jasotako materiala liburu batean bildu eta argitaratzeko asmoarekin batetik eta lortutako irabaziak ateismoa aldarrikatzen duten ekimenetan eta apostasiaren aldeko kanpainen erabiltzeko bestetik. Rafari egoki iruditu zitzaion asmoa eta "Aquellas noches de la infancia pasada" narrazioa bidali zuen.

Sariketa ateoaren berri izan zuenean bere kontakizun laburra idatzi eta bidali egin zuen Rafa Lopezek. Eta beste 20 poema, narrazio eta beste-lako lanekin batera argitaratu dute. Euskaldun berria da, euskaltegian ikasi du euskara eta gaztelaraz idazten du.

Lopezek berak kontatu digu sariketaren helburua erlijioaren beste ikuspuntu bat ematea zela, ateismoa aldarrikatzea, alegia. "Literatura

ateo da hau, literatura erlijio-soa dagoen bezala hau literatura ateo da". Ateismo gaiaz gain, ez zen idazlearentzat mugarik. Generoa ere librea zen, izan zitekeen olerkia, saiakera edo narrazioa, denetarik onartzen zuten.

"Aquellas noches de la infancia pasada" kontakizun laburrean bizipen batzuk fikzioarekin lotu ditu. Rafa Lopezek azaldu digunez, orain dela bospasei hilabete idatzi zuen



Rafa Lopez ateo da, bere iritziz, biblia liburu ona da baina zientzia fikziozkoa.

eta poz handia hartu du beste hogeitau autoreen lanekin batera argitaratu diotela ikustean.

Literatura zaletasun handia badu ere ez du asko idazten, baina asmoa eta bere helburuak ezagututa animatu egin zen. "Ni ateo naiz, ez dut sinesten. Biblia niretzat liburu

oso on bat da baina zientzia fikziozkoa" aitortu digu.

Bat egiten du beraz, kanariarren pentsamenduarekin. Lopezek kontatu digunez, liburuaren helburua ez da komertziala, lortzen den dirua ateismoa zabaltzeko erabiliko da. Apostasia bultzatzeko adi-

bidez. Berak bidali zion elizari apostasia edo elizatik ateratzeko eskaera, baina oraindik ez diote erantzun.

Literaturazalea da Lopez, beti ari da liburuaren bat irakurtzen. Gustukoaren artean ditu nobelak, "nobela historikoak batez ere". Patrick Süskind du gogoko, bere liburu gehienak irakurri ditu, el perfume, un combate y otros relatos, la paloma..., baita Mary Shelleyren Frankenstein... eta kontakizun laburrak ere bai, irakurtzeko errazak direlako.

## Liburu eskuratzeko

Herriko idazleak Manuel Lekuona kulturetxean jarriko ditu liburuaren ale batzuk, etxera eraman eta irakurri nahi dutenentzat.

Bestela, Rafa Lopez-en liburu erosteko, posta bidez eskatu daiteke La Colmena argitaletxean, 618 posta-kutxa, La Laguna 38205 Tenerife helbidean, e-mailez bibliotecalacola@colmena.com helbidean. Bost euroren truke bidaltzen dute liburu. Bestela, Gasteizko alde zaharreko Pandora liburudendan ere salgai dago eta Kataluniako Virus editoriala ere banatzen ari da liburu Estatu osoan. •

# SANCHO TABERNA

OGITARTEKOAK  
PINTXOAK  
PLATER KONBINATUAK  
EGUNEKO MENUA

KAXUELA, PINTXO ETA  
MORUNOETAN  
ESPEZIALIZATUA



HITZARTUTAKO  
eta  
TALDEENTZAKO  
MENUAK



Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372075

**K**erakusketa Miyamoto Musashiren *El camino del Samurai. El libro de los cinco anillos* liburuan du oinarria. Miguel Angel Oriberegan eragin handia izan zuen eta liburuan agertzen diren kontzeptuei buruzko erakusketa egitea bururatu zitzaion. Erakusketa ikusteko azken egunak dira hauek, maiatzaren 7a arte egongo baita Gros auzoko NoColor aretoa.

**Nola topatu zenuen Miyamoto Musashiren liburua?**

Kasualitatez aurkitu nuen, zoria izan zen. Oporretan paseatzen ari ginela, liburu denda berezia ikusi genuen, guztia Japoniako kulturarekin zuen zerikusia eta liburu hau *El camino del Samurai* interesgarria iruditu zitzaidan.

Ba ziren urte batzuk, Japoniarekin zerikusia zuten gauzek, gastronomia, historia edo zinema deigarri egiten zitzaizkidanak. Baina ez nuen irakurtzeko ezer bilatu eta liburua ikusi nuenean emazteari esan eta oparitu zidan.

Irakurri eta marrazten haste-ko aukera eman zidan. Liburutik koadroak eta marrazkiak egin nituen. Azpimarratzekoa da, erakusketa honetan marrazkiak daudela. Nik egiten ditut, baina ez ditut hainbeste erakusten.

**Musashiren liburuko *Ku* (hutsunea) kontzeptuek eragin handia izan du zuregan...**

Musashik hutsuneari buruz dio, ikaskuntza epe baten ostean iristen zaren egoera mentala dela, jakinduria batzen duzun bidea dela. Bide horren bukaera argi zuri eta distiratsua da, jakinduriaren hutsunea. Orduan, buruak ez du gogoratu behar nola egiten diren gauzak, bakarrik egiten ditu. Ideia poetikoa eta filosofikoa da.

Eta zer da hutsunea? Guk hain entzuna duguna, Oteiza eta beste artistek asko erabili duten kontzeptua da, ba Musashik antzeko gauza esaten zuen baina XVII. Mendean.

Hain ezberdina den kultura batean, hain urrun. Irakurtzen jarraitu eta gauza askotan bat zetozen. Oteizak bere kutxa metafisikoak aurkezterakoan

**Miguel Angel Oribe/ Eskultorea**

# “*Ku* (hutsunea) eta *Do* (bidea) kontzeptuak bizitzaren oinarri dira”

Miguel Angelek bizitza erdia darama eskulturak egiten. Harriarekin hasi zen *Artelekum* teknika gogorrena eta zehatzena ikasteko. Trebakuntzaren ostean, beste material batzuk erabiltzen joan zen eta egun zura eta burdina erabiltzen ditu gehien bat. Bi material horiek Donostiako NoColor aretoan duen *Ku* erakusketan nagusi dira. Baina erakusketa horrek badu sekretu bat eta ezagutzeko Oriberekin bildu eta solasaldi ederra izan genuen.



Miguel Angel Oribe jakinduriaren hutsunea irudikatzen duen *Ku* eskultura sailaren aurrean. Arg:Txema Valles.

zalaparta handia sortu zuen, hutsunak ez zeuden hutsik bere ustez, eskulturako huts horrek ez zuen ezer baina dena zuen. Hor zegoen betidanik eta berak aurkitu zuen.

**Baina ez da bakarra izan, *Do* (bidea) kontzeptuak ere...**

Bizitzaren oinarria dira. Bi kontzeptuak, gainera, aurretik interregarri iruditzen zitzaizkidan.

Bidea edo bidaia, gai oso interesgarri iruditzen zitzaidan. Oso gustuko dut bidaiatzea. Bidaiaren ideia poetikoa, errealitate bihurtzen ez dena, zerbait aurkitu, leku berria ezagutu,... ideia hori ere erakusten dago.

Pieza berria egiten duzunean, marrazkia egiten duzu,

baina materialarekin zaude- nean berriro ere hutsetik hasten zara eta zatiak egin, tolestu, hutsunak sortu, etab. Nondik joko duzun uste duzu baina ez dakizu guztia. Beti dago misterio puntu bat.

Ongi etorri zitzaidan, jarraitu behar den bidea aipatzea eta nik neure barruan bueltaka nituen gauza asko argitzen lagundu dit horrek.

**Baina erakusketan arkitekturak ere garrantzia handia du, ezta?**

Bai, nahi gabe lotura ikusi daiteke erakusketa honen eta Tolosan duela hiru urte egin nuenaren artean. Hura arkitekturi buruzkoa zen, ia %100.

Betidanik gustatu zaidan gaia da eta hainbat elementu

interesatzen zaizkit, hormak, hutsunak, argizuloak, zutabeak... Elementu batzuk daude interesgarriak iruditzen zaizkidanak eta oso eskultorikoak, haiekien jolastu eta nahi dudana egin baitezaket. Zutabearen ideiarekin, zutabea dirudien zerbait egin daiteke baina nire hutsune eta borobilekin jolasten uzten didana.

Arkitektura nire lanetan ikusi ahalko da. Marrazki asko ditut eta obra asko bukatzeko. Beraz, agian beste bi edo hiru erakusketetan arkitekturaren gaiak lekua izango du.

**Koadroak ere ikus daitezke...**

Nik ez ditut koadroak egiten ez naiz marrazlea, ni eskultorea naiz eta koadroa edo mihisea

eskultura bezala ikusten dut bolumenak ematen.

Bolumenarekin jolastea gustuko dut, plano eta materia ezberdinak bata bestearen gainean gehitzen joan, esate baterako, egurra horiz margotu eta gero hutsune batzuk egin, hori baita niri interesatzen zaidana.

Nik koadroa atera nahi dut, bolumena egin eta obrak arnas hartzea eta kanpora atera dadila.

**Proiekturik ba al duzu?**

Esku artean proiektu bat daukat orain. Baina urte bukaera arte ez dut besterik, beraz,erakusketa alde batetik bestera eraman nahi dut, Madril edo Lisboara.

Eta etorkizunean ba Lasarte-Orian zerbait jartzeko ahalegintan. Nik begiz jo dut eliza ondoan sortuko den oinezkoen eremua, bertan *Gizona* bat edo talde eskultura bat egotea ondo legokeela uste dut. Eskultura arin eta lirainak dira, ez lukete arazorik sortuko. Proposamena egin nion Udalari, baina oraindik ez dugu ezer hitz egin.

Beste proiektu bat Oria ibai-ko hertzean egingo duten pasealekutik Michelin parean dagoen irlara zubi bat egitea izango litzateke, baina beldurra ematen dit naturarekiko izango duen ondorioengatik. Ongi eginda, leku polita izan daiteke pasealekua bukatzeko. Lasai egoteko lekua izango litzateke, pentsatzeko lekua.

Bertan ere, eskulturren bat jarri nahiko nuke, aterpe antzekoa. Ongi sentitzeko lekua. Herriko zaratatik urrun, baina herri ondoan. •

Nerea EIZAGIRRE

**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

## ATE IREKIAK

etorriko zurela jakinarazi!

<b>GOI ESKOLA POLITEKNIKOA</b>	
<b>MAIATZAK 7 - 17:30</b> osteguna   <b>MAIATZAK 21 - 17:30</b> osteguna <i>2.zikloa</i>	ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu
<b>ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA</b>	
<b>MAIATZAK 14 - 18:00</b> osteguna	OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu
<b>HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA</b>	
<b>MAIATZAK 9 - 11:00</b> larunbata <i>2.zikloa</i>	ESKORRIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

USURBILGO IEPFS

**Ate ireki egunak maiatzean**

Usurbilgo Lanbide Eskolak urtero moduan Ate Irekien eguna antolatuta du.

Aurten, bi egunetan, maiatzaren 9an eta 16an goizeko 11:00etan, eskolako instalazioak zabalduko dira eta interesa duen guztiak ikusi ahal izango ditu gelak eta tailerrak.

Modu honetara eskolak ikasketen eskaintza aurkeztu ahal izango dio bertara hurbiltzen den orori.

Ate Irekien edo Lanbide eskolako informazio gehiago nahi izanez gero 943 364 600 telefono zenbakira deitu dezakezue. •

UR-HORNIDURA

**Ur-etetea Kaxkarro inguruan**

Gaur ur-hornidura eten egingo da Kaxkarro inguruan dauden baserrietan, 14:00ak eta 18:00ak bitartean gutxi gorabehera. •

UDALEKUAK

**Pradoluengora joateko izena emate epea ireki da**

Uztailaren 1etik 15era Lasarte-Oriako 67 gaztek Pradoluengon, Montes de Oca eskualdean eta Burgosetik 48 kilometrotara dagoen herrixkan hamabostaldi paregabea igarotzeko aukera dute.

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuek antolatutako Udalekuan kirolak, multiabentura, mendi irteerak, ginkana, natura jarduerak, tailerrak... hau guztia, 10 eta 14 urteko gaztetxoek gauza berriak ezagutu eta ongi pasatzeko.

Udalekuan izena emateko baldintzak Lasarte-Oriako errolatua egotea, haurra bere kabuz baliatu ahal izatea eta 1995 eta 1999. urte bitartean jaiotako haurra izatea dira.

Prezioa 244,10 euro dira eta diru-sarrerara KUTXako 00.1006903.7 kontu korrontean egin beharko da.

Udaletxeko Errejistro Nagusian egingo da izena ematea 9:00etatik 13:30etara.

Epea gaur ireki da eta maiatzaren 29ra arte egin ahal da. Eskabideak Udaletxeko Errejistro Nagusian sartutako hurrenkeran hautatuko direla jakin arazten du udalak.

Informazio gehiago Gizarte-Zerbitzuen Departamentuako egoitzan, Villa Mirentxun 9:00etatik 13:00etara edo udaletxeko [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) web-orrian eskuratu dezakezue. •

# Buruntzaldeko herrien arteko garraio loturak hobetuko dira

## ■ Astigarraga-Usurbil eta Urnieta-Usurbil autobus linea berriak ezarriko dira

**TXINTXARRI**

Buruntzaldeko herrialdeak lotuko dituzten bi autobus-lineak maiatzaren bigarren hamabostaldian martxan jarriko direla adierazi zuen Arantza Tapia Mugikortasun diputatuak apirilaren 28, asteartean, Gipuzkoako Batzar Nagusietako bileran.

Ezker Batua Berdeak taldeak Foru Gobernuarekin 2008ko aurrekontuetan adostutako akordioa da Buruntzaldeko herriak batuko dituen autobus-linearena. Eta urtarilaren 14ean autobus-linea berriaren berri eman zen arean atzerapenak egon dira.

Horregatik, Arantza Gonzalez Ezker Batua Berdeak taldeko batzarkideak, bere poza agertu du, azkenean martxan jarriko baitira.

"Benetan garrantzitsua dena hauek berehala martxan jartzea da, itxaroten denbora larregi daramagu eta", adierazi du Ezker Batua Berdeak taldeko batzarkideak. Esan duenez, autobus-linea hauek zonaldeko hiritarren aldarrikapen bat dira eta tresna garrantzitsua izango dira garraio publikoa bultzatzeko.

**Bi autobus-linea**

Astigarraga-Hernani-Lasarte-



Nahi baino gehiago atzeratu bada ere, badirudi hil honen erdialderako martxan jarriko direla autobus linea berriak.

Usurbil eta Urnieta arteko autobus-linea bakarra sortzea aurreikusten zuen 2008ko akordioak.

Baina, bigarren ingurubideko lanak bukatu arte, linea bi ezartzea erabaki da, Astigarraga, Hernani, Lasarte eta Usurbil, alde batetik, eta Urnieta-Lasarte-Zubieta eta Usurbil, bestetik.

Bi autobus-linea hauek egun lur eremu ezberdinetan

dauden lau autobus konpainiek egiten duten lana egingo dute.

**Lurraldebus**

Era berean, Lurraldebus sarea osatuko dute Buruntzaldean. Eta honi esker, eremuko herritarrek Lurraldebus txartela erabili ahal izango dute eta lehenengo egunetik autobus bidaetan deskontuak izango dituzte

Arantza Gonzalez Ezker Batua Berdeak taldeko batzarkideak hiritarrak autobus-linea berri hauek erabiltzera animatu nahi ditu herritarrek.

"Autobus-linea hauek mugikortasun sostengarria- goa lortzen lagunduko dute eta eskaintza erakargarria eta ekonomikoa eskainiko dute," adierazi du Ezker Batua Berdeak taldeko batzordekideak. •

## Musika Eskolako aurrematrikula epea gaur ireki da

Musika ikasteko grina baduzu hurbil du kultur etxera. Izan ere, Lasarte-Oriako musika eskolak 2009 eta 2010 ikasturteko aurrematrikula epea ireki baitu gaur.

2002 eta 2005 urte bitartean jaiotakoentzat txokoak, 8 urtetatik aurrera hastapena, musika hizkuntza eta abesbatza, 14 urtetik aurrerako helduen taldea, baita hainbat instrumentuetan, akordeoi, bibolina edo gitarra elektrikoak, banaka edo taldeka trebatzeko aukera ere.

Adin guztiarako eskaintza, beraz, Lasarte-Oriako musika eskolak aurkezten duena.

Manuel Lekuona Kultur etxean eskuratu daitezke aurrematrikula orriak 09:00etatik 13:00etara eta



Musika eskolako ikasleek bizpahiru kontzertu eskaintzen dituzte kulturetxean.

entregatzeko ere ordutegi bera izango da. Aurrematrikula egiteko azken eguna maiatzaren 22a da.

**Baldintzak**

Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailetik jakin arazten da, plaza eskuratzeko derrigo-

rezkoa dela aurrematrikula betetzea.

Era berean, plazaren eskaera egiteko uanean, plaza-eskaeraren kontzeptupean interesatuak emandako kontuan 40 eurotako zenbatekoa kargatuko da, eta dagokion matrikula egiteko uanean kopuru hori kontuan izango dela.

Plazarik gabe geratzen diren aurrematrikulek itxaron lista osatuko dute eta plaza baten eskabidea egin eta matrikula gauzaten ez duenak ez du ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango.

Informazio gehiagorako Manuel Lekuona Kultur etxera hurbildu, emailez [kultura@lasarte-oria.org](mailto:kultura@lasarte-oria.org) helbidera idatzi edo 943 37 6181 zenbakira deitu. •

Egunero

**Erakusketa**

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa. Vanessa Gimeno-ren lanak dira eta batez ere pintura oihalean aurkituko duzue ikusgai dauden lanen artean. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Igandea, 10

**Erromeria**

AZKORTEKO ERROMERIA ospatuko da. Bertan meza, bertsolariak, trikitilariak, herri-kirolak... Izango dira. Azkorteke ermitan, 11:00etatik aurrera, EUSKARAZ.

Ostirala, 15

**Dantza**

CONCIERTO DESCONCIERTO izena duen Centro Coreografico Galego, Entremans konpainiaren lan berria, Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



**Kudai taldearen Jake Matea**

KUDAI taldea gipuzkoarrak trash metal industrialaren alde egin dute, euskara husean eta beraien hirugarren diska aurkeztuko dute. Batez ere te. Izenburuak pertsieraz "jake mate" esan nahi du, eta kontzeptua Katherine Neville idazlearen "The Eight" liburuan oinarritua dago.

BIHAR, LARUNBATA 22:30EAN  
JALGI KAFE ANTZOKIAN  
EUSKARAZ

**Antzerkia**

HONOLULU LEKU BAT antzezlan izango da Gilkitxaro taldearen eskutik. Ekitaldi hau Kultur errotaren barne dago. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



**Eskutitzak**

**Martxoak 8**

Aurtengoan ere, Martxoak 8a kezka eta aldarrikapenez beterik hartu genuen. Zoritxarrez beste behin ere gure herriko emakumeen egoeraz kezkatu kalera atera ginen.

Emakumeak bigarren mailako hiritar izaten jarraitzen dugu 2009an eta eskubide asko ditugu oraindik aitortzeke. Sistema patriarkalak eta honen tresneria mugatzaileak antolatutako ereduaren arabera bizitza eramatera mugatuta gaude. Berdintasunaren diskurtsoaz bete dituzte aho eta papearak, baina azken urteetan ezer gutxi aldatu dela agerikoa dugu oraindik (emakumeen kontrako indarkeria kasuak gora doaz, krisiak emakumeok kolpatzen gaitu gehien...).

Gure gorputzaren inguruko erabakitze eskubide urriak izaten jarraitzen dugu. Aurtengoan, Martxoak 8an, ahalegin berezia egin dugu abortua eskubidea dela aldarrikatzen, izan ere, ezin dugu ahaztu abortuak delitua izaten jarraitzen duela estatu espainolean. Oztopo legalez gain, oztopo ekonomikoak eta etika zein moralaren erabilera bikoitzak sortzen duen presio soziala gainditu behar dira abortatu ahal izateko, informazio eta prebentzioari dagokionean atzerakada nabariak pairatzen ditugun bitartean.

Gainera, eskuineko alderdiek eta Elizak emakumeon eskubideak berriz ere hautsaren pare uzteko lanean dihardute. Eraso berri hauen aurrean feminismoak kokatu eta atzera pausu bat ere ez emateko hautua egiten dugu eta Euskal Emakumeon Eskubideen Kartan jasotako eskubideak ditugu helburu:

- Eskubidea gure identitate sexuala edozein izanda ere sexualitate askatasunez bizitzeko.
- Eskubidea gure gorputzaren inguruan askatasunez erabakitze eta aukeratzeko.
- Eskubidea emakumeon beharrei erantzuneko dien osasun zerbitzu erabatekoak eta publikoak izateko.
- Eskubide horiek errealitate bihurtzeko ondorengo aldarrikapenak

egiten ditugu:

- Abortua ez da delitua, eskubidea baizik.
- Abortuak libre eta doakoa izan behar du.
- Guk erditzen dugu eta erabakiak ere gurea izan behar du.
- Sexualitatea ez da amatasuna soilik.
- Heziketa sexual integrala behar dugu.
- Lasarteko Bilgune Feministatik balorazio oso positiboa egiten dugu aurtengo Martxoak 8aren inguruan. Gauza asko hobetu daitezke baina oztopo guztien gainetik, parte-hartzea zabala izan da eta batez ere emakume ezberdinen artean sortu den aliantza azpimarratu nahi dugu.

Horregatik, antolatutako ekintza ezberdinetan parte hartu duzuenoi eta bereziki antolakuntzan lanean aritu zaretan emakume guztiei ZORIONAK eman nahi dizkizuegu. Eskerrak ere bai Xirimiri elkarteari atek zabaltzeagatik, Amaia Agirre eta Ane Labaka bertsolariei bazkalostean jarri zuten gazt eta piperragatik, trikitilariet eguna girozeagatik, triki-poteoan parte hartu zuten eta egunero panelak jarri eta kentzen ibili diren tabernei eta gure ondoan egon zaretan guztiei.

Hala ere, asko dago egiteke jendarte feminista bat lortzeko bidean eta emakume guztiei deialdia egin nahi dizuegu borroka honetan jarraitzera. Horregatik, Maiatzaren 1ean eta Maiatzaren 21eko greba orokorrean kalera ateratzeko deialdia egiten dizuegu, krisian ere emakumeok baikara kaltetuenak eta ahaztuenak. Baita Maiatzaren 30ean abortu eskubidearen alde egingo dugun manifestazio nazionalan parte hartzera ere.

**Lasarte-Oriako Bilgune Feminista**

**Liburutegiko ordutegia**



Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18  
Tel.: 943 376181

**Esazu irratiko programazioa**



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

**Oharrak**

**Herri batzarra**

Maiatzaren 7an, osteguna, arratsaldeko 19:00etan Xirimirin herri batzarra antolatu du Ezker Abertzaleak maiatzaren 21eko Greba Orokorra gaitzat hartuta.

**Begirale izateko**

Ttakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448 edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

**Zabaleta auzoko festak**

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak

antolatzeko bilerak egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

**Bidea itxita**

Udalak jakinarazi nahi du Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, gaur hasi eta uztailera arte Illarraltzueta bidea itxita egongo dela, Larrekoetxetik Villa Maria Luisara arte.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Landaberriko Patruila Berdea

■ Eskola Agenda 21 lantzen hasi zirenetik zenbait jokabide zuzendu dituzte eta garbiagoak dira ikastolan ■ Zortzi ikasle arduratzen dira ingurumena zaintzeaz.

Lan oparoa egiten ari dira aurtengo ikasturtean Landaberri ikastolan Patruila Berdeko zortzi ikasleak. Agenda 21 ekimena jorratzen hasteko zaborraren gaiari heldu diote. Patruilaren zeregina ingurumena hobetzeko ideiak lantzea eta beste ikasleei proposatzea da. Esperientzia interesgarria dela aitortu dute patruilako kideek eta zenbait ekintza konkretu garatzen ari dira ingurumenarentzat kaltegarri diren ohiturak aldatzen joateko: ikastolako sarreran txoko berdea dute informazio interesgarria emateko, nonahi aurkitu daitezke plastikoa biltzeko edukiontzi horiak eta kanpoan daukate zabor organikoa biltzeko eta konpostatzeko ontzia.

## TXINTXARRI

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan lau gela dira Landaberrin eta seigarren mailan beste lau. Gela bakoitzetik ordezkarri bat aukeratu, eta 10-12 urte arteko zortzi lagun horiek osatu zuten ikasturte hasieran Patruila Berdea. Ordutik hiru mailatan lana egin dute, sentibilizazio fasean ikasle guztiek gaiari buruzko informazioa jaso zuten, ondoren ikastolaren egoeraren diagnostikoa egin zuten Patruilak eta azkenik ikastolako zenbait joera aldatzeko ekintza zehatz batzuek garatu dituzte.

Lehen unean, ingurugiroari buruzko zenbait bideo eta bideo jokoen bidez, informazioa jaso zuten ikasleek. Gainera 5 eta 6. mailan gela bakoitzak ordezkarri bat aukeratu zuten Patruila Berdea osatzeko. Patruilako ordezkarrien iritziz bi gai dira eurengan nabarmenki eragin dutenak, kontsumoa eta zaborra. Biak lotuta daudela garbi dago, asko kontsumitzen da eta zabor asko sortzen dugu

ondorioz. Gai hau lantzen ari dira eta Patruilak dio ikastolan eraginik izan duela, zenbait ohitura aldatzen ari direla eta ez dagoela lurrean horrenbeste zabor.

Bigarren fasean, Patruila Berdeko kideak gelaz gela pasa ziren galdeketa baten bidez azterna ekologikoa ateratzeko, hau da, pertsona bakoitzak bizitzako premiak asetzeko eta sortzen dituen hondakinak asimilatze behar duen naturaren azalera. Arazoa sortzen da toki batean dagokion aztarna baino gehiago kontsumitzen denean, horrela bizitzeko planeta bat baino gehiago beharko litzake eta. Landaberrin ere ikasle, irakasle eta gurasoen artean emaitza altuak ateratu ziren, hau da, "testaren emaitzen arabera, batzuek beste kutsatu dezakeguna baino gehiago kutsatzen dugu, guri dagokigun planeta zatia janda daukagu".

Gelaz gela pasa zen Patruila jasotako informazioa eman eta galdera batzuk egin; papera berrerabiltzen zuten, plastikozko zaborra



Patruila Berdeko zortzi kideak 10-12 urte dituzte. Irudian, konpostatzeko ontzia daukaten tokian daude.

bereizten zuten eta antzeko galderei erantzuteko astebete izan zuten eta denak jasotakoan ondorioak atera zituzten: gela batzutan oso gutxi berrerabiltzen zen papera, plastikoa asko erabiltzen zuten, eta pare bat edo hiru gelatan izan ezik, gainontzekoetan ez zegoen hau jasatzeko edukiontzirik, ezta gelatatik kanpo aztertu zituzten beste zenbait lekutan ere, adibidez irakasleen kafetegian.

## Plastiko ugari

Azkenik, ekintza fasean da Patruila. Patruilariak eurek azaldu digutenez, "diagnostikoaren emaitzak landu, ondorioak hartu eta ideiak ematen ditugu gauzak hobetzeko. Adibidez irakasleen gelan kafearentzat plastikozko eda-

lontziak erabili ordez bakoitzak etxetik berea ekartzeko proposatu dugu edo ondo konpostatzeko zerranda bat jarri dugu zer bota daitekeen eta zer ez azalduz. Beste ideietako bat hamaiketako albal paperean bilduta ekarri ordez tuper batean ekartzea da. Hau oraindik ez dugu lortu, ikastetxe kanpoan dauden ontziak plastikoz asko betetzen dira, plastikoa izugarria da"...

Zaborra bereizten hasi direnean konturatu dira plastikoa pila botatzen dugula. "Horregatik behin baino gehiagotan eskatu diogu San Markoseko Mankomunitateari edukiontzi handi hoietako bat ekartzeko, baina ez digute ekartzen".

Agenda 21 garatzen ari diren irakasleen ustez ere

esperientzia oso interesgarria da: "Ingurugiroarekiko kezka ez da berria Landaberrin, ez da oraingoa. Baina lehen, lana ikastetxe mailan egiten zen eta ekimenek ez zuten loturarik inguruko ikastetxeekin". Lasarte-Oriako Udala Agenda 21 ekimena garatzen ari da, baina oraindik ez du Eskola Agenda 21 martxan jarri. Laister jartzeko asmoa omen du eta orduan bulzada handia izango du herriko ikastolen taldea sortuko delako eta elkarrekin lan egiteko aukera izango dutelako. Bien bitartean Landaberri ikastola Hernaniko ikastetxeekin koordinatu da. Herri mailako ekimena izan ala ez izan, aurten kontsumoa eta zaborra bezala, hurrengo urtean uraren gaia landuko dute. •

**GOIEGI**  
*Jatetxea - Restaurante*

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) · T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Maiatzatik Irailera gauero\* zabalik  
Asteko menu berezia ikusteko:  
**www.goiegi.com**

\* igandea eta astelehena ezik